

2022KO AURREKONTUAK

HERRITARREN PROPOSAMENAK

JASOTZEA

METODOLOGIA

Zertarako gonbidatzen da parte hartzera?

1. Jakin nahi dugu zeintzuk diren 2022an Ermuko herritarrek lan egiteko **lehentasunezko**tzat jotzen dituzten **esparruak**.
2. Gainera, eremu horietan **jarduteko proposamen zehatzak** jasoko ditugu, pertsonak helarazi nahi dizkigutenak.

Udal Gobernuak erabakiko du zeintzuk sartuko dituen udal aurrekontuan, proposamenen bideragarritasuna teknikoki aztertu ondoren.

Nork parte hartuko du?

Baldintza hauek betetzen dituen pertsonak:

- Ermuan erroldatuta egotea
- 18 urte izatea

Prozesu honetan parte hartzeko, pertsona identifikatzeko eskatuko zaie, izen-abizenak eta NANA adieraziz.

Nola parte hartu?

- Etxeetara helaraziko dugun paperezko galdetegia betez.
- Nahiago baduzu, udalaren webguneko online galdetegia betez.

Galdetegiak entregatzeko epea: **urriaren 29tik azaroaren 7ra.**

Nola parte hartu?

Paperezko galdetegiak leku hauetan entregatu daitezke:

- Abiapuntun, Lobianon, liburutegian eta kiroldegian jarritako hautestontzietan (urriaren 29tik azaroaren 7ra)
- Postontzian (frankeorik gabe)
- Leku eta data hauetan kokatutako karpak:
 - Azaroak 3, asteazkena, Patxi plazan, San Pelaion eta San Lorentzon: 18:00etatik 20:00etara.
 - Azaroak 4, osteguna, Patxi plazan eta San Isidron: 18:00etatik 20:00etara
 - Azaroak 5, ostirala, Patxi plaza, San Pelaio eta San Lorentzo: 18:00etatik 20:00etara.

Zer egingo da proposamenekin?

1. Proposamenak balorazio teknikoa jasoko dute eta erabakia hartuko da: proposamen txertatuak, ezetsiak, azterlan gehigarrien zain daudenak edo beste une batean baloratu beharreko proposamenak.
2. Zinegotziak telefonoz jartzen dira harremanetan ekintza zehatzak proposatzen dituzten pertsonekin, eta hartutako erabakiaren berri ematen diete.
3. Emaizak udalaren webgunean argitaratzen dira.

Zeintzuk dira herritarrek parte hartzeko dituzten bestelako kanalak?

Partaidetza taldeak:

- Ermua, hiri hezitzailea. Erronkak eta garatu beharreko ekintzak definitzea eta haurrek lehentasuna ematea.
- Ermua, Hiri atsegina adineko pertsonekin. Garatu beharreko ekintzak proposatzea eta udal-arloetatik erantzutea.